

# PANDEMIA ETA LGTB PERTSONAK: BERDINTASUN EZAREN AURKAKO BORROKA INTEGRALA\*

**C**ovid-19ak errealitate gordin bat jarri du agerian: mugimendu sozial guztien azpian aurki daitezkeela berdintasun ezaren arrakalak. LGTB pertsonen giza eskubideen aldeko borrokak kanpoan uzten baditu sozialki eta ekonomikoki baztertutako pertsonak, batzuen mesederako soilik izango da borroka hori.

Ezinezkoa da 2020. urtea ebaluatzea lesbianen, gayen, bisexualen eta transexualen ikuspegitik, ez badugu kontuan hartzen **Covid-19a** oztopo handia izan dela eta urte bereziki aztoratua izan dela, baita LGTB pertsonentzat ere. Covid-19aren pandemiak berdintasun ezaren arrakalak azaleratu zituen, eta pandemiak pertsona asko besteak baino egoera zaurgarriagoan utzi ditu infekzioei, pronostikoari eta eragin ekonomikoari dagokionez, baita **LGBTB** komunitateen barruan ere. LGTB pertsonak estigma sozialari, desohore moralari eta legezko diskriminazioari aurre egin behar dioten herrialdeetan, aukera ekonomiko gutxiago dituzte eta behartsu izateko aukera handiagoa, are, LGTB pertsona batzuk gobernuaren suspertze-ekonomikorako planetik kanpo geratu direnean. Covid-19aren ondorioen aurka borrokan ari ziren bitartean, LGTB pertsonak gobernuaren, politikarien eta giro publikoaren aldetiko ohiko **homofobia eta transfobia mordoari** egin behar izan zioten aurre.

LGBTB kolektiboaren aurkako aurreiritziak argi geratu ziren Covid-19ari aurre egiteko herrialde guztien estrategietan. **Ugandan**, polizia 20 pertsona LGTB gazte etxegabe atxilotu zituen, Covid-19aren murrizketak ez

errespetatzea faltsuki egotzita, eta torturatu egin zituen kartzelan. **Filipinetan**, tokiko funtzionarioek LGTB pertsona batzuk umildu zituen etxeratze-abisua aplikatzen ari ziren bitartean. **Hego Korean**, sare sozialetako erabiltzaileek erruduntzat jo zituzten LGTB pertsonak, hedabide batzuek Covid-19aren hedapena taberna gay batzuekin erlazionatu ondoren. **Panaman**, poliziak eta segurtasun pribatuko funtzionarioek pertsona transgenero batzuk diskriminatu zituen, genero-irizpideetan oinarritutako berrogeialdia aplikatzen ari zirela. Hungariako **Viktor Orbán** lider populistak Covid-19aren larrialdiko boterea erabili zuen pertsona transgeneroen kontrako legeak onartzeko.

## Eskubideak ukatzen

**Donald Trumpen** gidaritzapean, Estatu Batuetako gobernuaren orientazio sexualarekin eta genero identitatearekin erlazionatutako eskubideen aitortzearen atzera egiten saiatu zen. Hori eginez, munduko beste gobernuetara adierazi zien eskubide horiek erabili eta botatzekoak zirela. **Eskubide Besterenezinen Batzordea** sortu zuen, ustezko "eskubideen ugaritzea" zuzentzeko tresna gisa aurkeztu zena. Batzordeak oinarritzeko eskubideen eta eskubide arrotz deiturikoen arteko aldeak desberdintzea erabaki zuen eta eskubideen gezurrezko hierarkia bat sortu; hierarkia horretan, emakumeak eta LGTB pertsonak behealdean kokatu zituzten, eta jabeak eta erlijioarekin lotutakoak goialdean. Hitz gutxitan, batzorde horrek unibertsalitatearen eta zatiezintasunaren printzipioen kontrako eskubideen proiektu bat sortu nahi zuen AEBetan. Arrazoi erlijiosoengatik LGTB eskubideek jasandako atzerakadaren

\*Eskerrak eman nahi dizkiogu Política Exterior aldizkariari eta egileari ale honetan parte hartzeagatik.


Gaztelaniazko testua hemen dago publikatuta / El texto en castellano se puede consultar en:

<https://www.politicaexterior.com/pandemia-y-personas-lgtb-lucha-integral-contra-la-desigualdad/>

<https://www.hrw.org/es/news/2021/02/24/pandemia-y-personas-lgtb-lucha-integral-contra-la-desigualdad>

testuinguruan sortu zen Eskubide Besterenezinen Batzordea, eta pertsona transgeneroen kontrako eskubideen kontrako eraso sistematikoa izan zen. Trumpek eskubide horiek mugatzeko zuen asmoari erantzuteko, AEBetako Auzitegi Gorenak adierazi zuen lege federalak debekatu egiten zuela orientazio sexuala eta genero identitateagatiko lan-diskriminazioa. Auzitegiak interpretatu zuen Eskubide Zibilen Legeko VII. atalak, zeinak adierazten baituen enplegatzaileek hainbat arrazoiengatik langileak diskriminatzea debekatuta dagoela, "sexuari" egiten zaion erreferentziak orientazio sexuala eta genero identitatea ere barne hartzen dituela. Sententzia hori aurrerapauso handia izan zen diskriminazioaren kontrako bestelako babesari dagokionez, bai AEBetan, baita beste herrialdeetan ere. Legeak izan ditzakeen anbiguitasunak argitzeko aukera egon daiteke AEBetako Kongresuak 2019ko Berdintasun Legea berriro sartu eta onartzen badu. Ordezkariei Ganberak onartu zuen jada lege-proiektua, zeinak **orientazio sexuala eta genero identitateagatiko diskriminazioa** debekatzen baituen hezkuntzan, etxebizitza arloan, espazio publikoetan, gobernu federalak finantzatzutako programetan, kredituetan eta zinpeko zerbitzuetan, baina ez aurrera ez atzera geratu zen Senatuan.

Kongresuko demokratak zein **Joe Bidenen** gobernuak saio honetan lege-proiektuari lehentasuna emateko asmoa adierazi dute. Kontuan izanik Estatu Batuetako auzitegiengan aurrerapen handiak lortu direla, kezagarria da, AEBetako LGBT pertsonen eskubideak



*Sarah Hegazy, falleció en el exilio en 2020. Había sido arrestada en 2017, acusada de libertinaje por desplegar una bandera del arcoíris. Sufrió abusos y torturas durante tres meses por parte de las autoridades egipcias.*

epe luzean babesteari dagokionez, Auzitegi Gorenerako hiru epaile kontserbadore eta gainerakoetarako beste hainbat izendatu izana. Filadelfia hiriaren aurkako **Fulton kasuaren** sententzia 2021an heltzea espero da eta LGBT pertsonen eskubideen babes judiziala neurtzeko barometro gisa balioko du. Sententzia horretan galdetzen zen ea Filadelfia hiriak agentziei eska ziezaiekeen diskriminazio ezaren politikak errespetatzeko eta harrerako haurrak sexu bereko bikoteei esleitzeko.

**Erresuma Batua** pertsona transen eskubideen inguruko gudu-zelai iskanbilatsu bihurtu da; izan ere, transgenero identitatea arbuizatzeko ez-ohiko hitzarmen bat egin dute kontserbadore sozialek, feminista batzuek eta horien ezkerreko jarraitzaileek, generoa aldaezina dela dioen ikuspegi esentzialista bat oinarri hartuta. Emakume eta haurrentzat arriskutsua izan daitekeela adierazten dute, eta emakume eta transen eskubideak joko moduan babesteak ez duela ezer balio. Abenduan, Auzitegi Gorenak—

# PANDEMIA ETA LGTB PERTSONAK: BERDINTASUN EZAREN AURKAKO BORROKA INTEGRALA

→ adierazi zuen 16 urtetik beherakoek ez zutela pubertaroa blokeatzeko botikak onartzeko gaitasunik. Botikok trans gisa identifikatzen direnei euren genero-trantsizioari buruz erabakitzeke denbora emateko tresna bat dira eta pubertaroa atzeratzen dute. Trans gazteei ematen zaizen oinarritzko arretaren parte dira hainbat herrialdetan, esaterako, Herbehereetan eta AEBetan. Bezero ohi batek Tavistock-eko klinika bat, hain zuzen, Osasun-zerbitzu Nazionaleko generoarekin erlazionatutako klinika bakarra, auzitara eraman zuen, arrazoituz klinikak ez zuela behar bezala ebaluatu pubertaroa blokeatzeko botikak jaso baino lehen, eta egun, trantsizioa egin ondoren, damutu egiten zela hartutako erabakiaz. Kasu hori testuinguru politiko oso aztoratu batean gertatu da; izan ere, hainbat gazte talde pertsona presioa egiten ari dira transen inklusioaren kontra eta horrek kalte handiak eragiten ditu bereziki zaurgarriak diren gazte transengan, tratamendua jasotzeko aukera mugatuak baitituzte. Kasu honetan, auzitegiak adierazi du pertsona transexualei ematen zaizen arreta sakonago aztertu behar dela. Adierazpen hori kolpe nabarmena izan da, izan ere, pertsona trans taldeek euren generoa legalki aitortzeko eskubidea errespetatzeko eskaeraren harira, **Boris Johnson** lehen ministroaren gobernu kontserbadoreak ez du Genero Aitorpenaren Legea gehiegi aldatu, aurreko gobernu kontserbadoreak agindu zuen bezala. Baliteke pertsona transen auziak guda kulturalen erdigunean egoten jarraitzea, bai Erresuma Batuan, baita beste herrialde batzuetan ere; izan ere, karga politiko handiko garaietan, anbiguotzat hartzen diren horiek aztergai bihurtu ohi dira.

Bitartean, Polonia eta Hungariako gobernu eskuindar gogor eta kontserbadoreek LGTB

pertsonen aurkako gorrotoa piztu zuten familiako balioen izenean, eta benetako helburua ezkutatu zuten: euren botere hartze antidemokratikoa. Transen kontrako legediaz gain, Hungariak debekatu egin zuen sexu bereko pertsonen adoptatzeko eskubidea. Poloniako presidenteak LGTB kolektiboa komunismoa baino okerragoa den ideologia baten antzerakoa dela adierazi zuen, "Familiaren gutuna" sinatu zuen, non sexu berekoen arteko ezkontza, adoptatzeko eskubidea eta eskoletan LGTB edukiak lantzeko aukera blokeatuko zituela hitzeman baitzuen eta "LGBT ideologia gabeko eremu" aitortzen diren tokiko agintaritzak kopuruak gora egitea bultzatu zuen.

AEBak eta Erresuma Batuan atzera egin zen bitartean orientazio sexualarekin eta genero identitatearekin erlazionatutako eskubideei dagokienez, **Egiptok** uko egin zion "orientazio sexuala" eta "genero identitatea" terminoak aitortzeari Aldizkako Azterketa Unibertsala deritzon NBERen parekoen ebaluazioan eta, hori gutxi balitz, LGTB pertsonen existentzia bera ere ukatu zuen, eurak etengabe atxilotzen zituen bitartean. Egipto munduko arau urratzaile okerrenetarikoa da kriminalizazioari, biolentziari eta diskriminazioari dagokionez, LGTB pertsona ugari atxilotzen baititu eta abusuak egin, uzki-azterketak barne. **Sarah Hegazy** aktibista, atxilotu eta torturatu eta sexualki erasotu zuten Egiptoko kartzela batean, El Cairoko kontzertu batean ostadarraren bandera astintzeagatik. Kanadara erbesteratu zen eta bere buruaz beste egin zuen ekainean. Egiptoko eskubideen historia ikaragarria izanik ere, gainerako gobernuen gaitzespena ez da egokia, Egipto kide estrategikotzat hartzen baitute aliatuek segurtasun-materialari dagokionean. Ikuspegi hori nahiko *miopela*

da, ez baititu kontuan hartzen giza eskubideak sistematikoki zapaltzen dituen erregimen baten alde egotearen epe luzeko ondorioak.

### Abusuak medikuntza-esparruan

Egipto ez da izan herrialde bakarra tortura izatera hel daitezkeen oinarri zientifikorik gabeko uzki-azterketak egiten. Besteak beste, **Tunisiako, Ugandako, Tanzaniako eta Sri Lankako** medikuek ere egin zituzten 2020an.

2020an, etengabe hazi da mundu osoan **bihurketa-terapiak**, hau da, orientazio sexuala edo genero identitatea aldatzen saiatzeko terapiak, behin betiko amaitzeko mugimendua.


**Albania, Australia, Kanada, Frantzia, Alemania, Malta, Irlanda, Zeelanda Berria, Espainia eta Erresuma Batua** bezalako hainbat herrialdek praktika horien debekua aldarrikatu dute edo horiek debekatzeko neurriak hartu dituzte. **Europar Batasunak** ere eskatu die Estatuak jardunbide horiek debekatzeari. Gaiari buruzko txosten bat aurkeztu zion NBERi Orientazio sexuala eta genero identitateagatiko Biolentzia eta Diskriminazioaren aurkako Borrokaren NBeko

aditu independenteak. Bertan frogatu da bihurketa-terapiak kalte larriak eragiten dituztela, haurrengan bereziki. Kasu batzuetan, tortura edo tratu krudel, anker eta umiliagarri gisa hartzen da.

Behin hori esanda, kontuz ibili beharra dago. Eskumen batzuk “bihurketa-terapien” definizio lauso eta zabalegietan oinarritzen dira eta eskubideak are gehiago urra ditzaketen zigor penalen mendeegi daude. Beharrezkoa da eskubideak errespetatzen dituen ikuspegi holistiko bat hartzea, debeku legal egokituak, hezkuntza publikoa eta bizirik atera direnentzako laguntza psikosoziala barne hartzen dituen.

Bostongo Ospitalea haur intersexualentzako arretaren inguruko arauak hobetu zituen

haurrentzako bigarren ospitale nagusi bihurtu zen AEBetan, Chicagoko Lurie Haurren Ospitalearekin batera, eta bertan behera utzi zituen baimenik gabeko hainbat ebakuntza kosmetiko. Aurrerapen horiek hasiera egokia dira haur intersexualei egiten zaizkien baimenik gabeko ebakuntza kirurgiko ez beharrezkoekin amaitzeko, nahiz eta ebakuntza horiek debekatzeko ahalegin legislatiboak arrakastarik ez izan Kalifornian. Urte berriak berri itzaropentsuak ekarri zizkigun, Haurren eskubideen aldeko Indiako agentziak ebakuntza “normalizatzaile” horiek debekatzeari gomendatu baitzuen herrialde osoan.



# PANDEMIA ETA LGTB PERTSONAK: BERDINTASUN EZAREN AURKAKO BORROKA INTEGRALA

→ 2021ari begira, LGTB pertsonen eskubideen aldekoek medikuntza-abusuen aurkako borrokan egindako aurrerapausoetan jarri beharko lukete arreta — nahiz eta kriminalizazioak ez lukeen baliabide bakar izan behar — eta giza eskubideen irismena murrizteko edo eskubide horiek nork eduki behar dituen zehazteko saiakeren kontra egin behar dute. Era berean, kontziente izan behar dute Covid-19ak agerian jarri duen errealitate gordinaz: mugimendu sozial guztietan aurki daitezke berdintasun ezaren arrakalak. LGTB pertsonen giza eskubideen aldeko borroka kanpoan uzten baditu sozialki eta ekonomikoki baztertutako pertsonak, batzuen mesederako soilik izango da borroka hori.

## Espero gabeko aliatuak

Urrian, Francisco Aita Santuaren bizitzaren eta garaiaren inguruko bideo-dokumental bat bota zuten. Bertan, Aita Santuak adierazten zuen elkarketa zibilen alde zegoela. Eliza katolikoaren doktrina ofiziala aldatu ez bada ere, Aita Santuak eragin moderatzailea izan du orientazio sexualagatiko diskriminazioari dagokionez. Mantendu du bera ez dela inor besteak epaitzeko eta beste ikuspegi

bat eman dio pobrezia, berdintasun eza eta klima-hondamendia bezalako afera garrantzitsuei. Elkarketa zibilen alde egoteak ikuspegi hori haratago eramaten du, homosexualen eskubideen alde borrokan dihardutenen aldarrikapenei babesa ematen baitie. Vatikanok, zeintzuk ziurtatzen baitute homosexualak ezkontzeak ez duela gizartearen gainbehera ekarriko, baizik eta indartu egingo duela lege zibilak eta sekularrak sexu berekoen arteko harremanak modu ordenatu batean aitortzen baditu.

2021ari begira, LGTB pertsonen eskubideen aldekoek medikuntza-abusuen aurkako borrokan egindako aurrerapausoetan jarri beharko lukete arreta — nahiz eta kriminalizazioak ez lukeen baliabide bakar izan behar — eta giza eskubideen irismena murrizteko edo eskubide horiek nork eduki behar dituen zehazteko saiakeren kontra egin behar dute. Era berean, kontziente izan behar dute Covid-19ak agerian jarri duen errealitate gordinaz: mugimendu sozial guztietan aurki daitezke berdintasun ezaren arrakalak. LGTB pertsonen giza eskubideen aldeko borroka kanpoan uzten baditu sozialki eta ekonomikoki baztertutako pertsonak, batzuen mesederako soilik izango da borroka hori.



**Graeme Reid.** Ikasketaz antropologoa da Graeme Reid akademiko eta aktibista hegoafrikarra. Gaur egun LGTB eskubideen programaren zuzendaria da Human Rights Watch erakundean. Horren aurretik, Hego Afrikako Gay eta Lesbianen Artxiboen zuzendari eta sortzaile, Ikerketa Sozial eta Ekonomikorako Wits Institutuko ikerlari eta Yale-ko Unibertsitateko Lesbianen, Gay-en, Bisexualen eta Transgeneroen Ikasketetako irakasle izan zen. Irakasle gonbidatu gisa irakasten jarraitzen du oraindik azken horretan. Ikerketak egin ditu, irakaskuntzan aritu da eta generoarekin, sexualitatearekin, LGBT kolektiboarekin eta GIBa eta lhesarekin lotutako lan ugari argitaratu ditu. Bere lanen artean, *How to be a Real Gay: Gay Identities in Small-Town South Africa* (2013) eta *Above the skyline* (2011) dira nabarmenenak. Azken honetan Tsietzi Thandekiso erreberendoaren lana ezagutarazi zuen,

Hope and Unity metropoli-komunitateko eliza, hain zuzen. Eliza-komunitate hori bakarra da eta integratzailea da LGTB kolektiboari dagokionez eta homosexuala “ez kristaua” eta “ez afrikarra” dela dioten adierazpenen kontrako diskurtso indartsu bat sortu du. Era berean, zuzendarikide gisa aritu zen *Dark and Lovely, Soft and Free* (2000) dokumentalean, zeina baliabide bikaina den, ez soilik LGTB ikasketetarako, baita afrikar ikasketetarako ere.